

## Ikastola-Eguna, egitaraua

**ADI! DBHko egitarauen ordutegia aldatu egin baita!**

**9:45:** LH1-2-3 jolasak Ikastolan.

**10:00 - 11:30:** DBHko ikasleen jolasak herrian zehar.

**11:00:** LH4-5-6 jolasak Ikastolan.

**11:30-13:30:** DBHko ikasleen erakusketa Ikastolako laborategian.

**12:30:** HHko musika saioa (Mikel Laboa Plazan eta txarra egingo balu Ikastolako frontoian).

**14:00:** Bazkaria frontoian.

**15:30:** LH6ko ikasleen kantaldia.

**16:30-18:45:** Ostolaza eta Narbaiza trikitilariak

**Haur eskolako erakusketa** ikusgai egongo da ekainaren 5etik 12ra, haur eskola bertan, sarrera guneeetan. 2-3 urtekoena beheko solairuko sarreran eta 0-1 eta 1-2 urtekoena 1. solairuko sarreran.



## ALEXIAfik INIKArA

26/27 ikasturtean, ikastola eta familien arteko kudeaketa INIKA programaren bidez egingo da, eta Alexia ez da aurrerantzean erabiliko.

Aurrerago, INIKAREN erabiltzailea eta pasahitzarekin batera bideo-tutorial batzu bidaliko dizkizuegu, erabilera errazteko.

Erabiltzaile-izena eta pasahitza jasotzen dituzuen unean, INIKA mugikorreko aplikazioa deskargatzea gomendatzen dizuegu, ikastola eta familien arteko komunikazio egokia bermatzeko.

Edozein zalantza edo languntza behar baduzue idazkaritzarekin jarri harremanetan.



## 2026/2027 ikasturterako zerbitzuetan izen-ematea

### Garraio-zerbitzua

Datorren ikasturterako garraio-zerbitzua antolatzen hasiak gara. Gogoratu, izen-ematea urtero egin behar dela, erabiltzaile berria izan ala ez. Ibilbideak eta geltokiak izena eman duten erabiltzaileen beharren arabera egokitzen dira. Zerbitzuaren beharra izango duzuela aurreikusiz gero, [galdetegi hau](#) **ekainaren 19a** baino lehen erantzun beharko duzue.



Edozein zalantza edo argibidetarako [usurbil@ikastola.eus](mailto:usurbil@ikastola.eus) helbidera zuzendu.

### Goizeko zaintza

Egunero, ikasturte osoan, 8:00-9:00 orduategian Agerialdeko eraikinean zerbitzu hori eskaintzen da. Izen-ematea **ekainaren 19a** bitarte egin daiteke [galdetegi hau](#) betez.

### Arratsaldeko zaintza

Irailean zehar, klase orduak goizetik soilik direnean, 14:30-16:30 orduategian zaintza eskainiko da, ikasle kopuru minimoa osatzen bada. Zerbitzua behar izanez gero, bete mesedez [galdetegi hau](#) **ekainaren 19rako**.

### Jangela

Datorren ikasturteko jangelako zerbitzua antolatzeko, familien beharrak zeintzuk diren jakin behar dugu, hori dela eta, mesedez, [galdetegi hau](#) **ekainaren 19a** baino lehen betetzea eskatu nahi dizuegu.

## Ekainaren 13an, Euskaltzaleon Martxa Iruñean

[Euskaltzaleon martxa](#) lelopean, ekainaren 13an Iruñako kaleak betetzeko mobilizazio jendetsua antolatzen ari gara euskalginzaren Kontseilua osatzen dugun erabileak.

Gero eta gehiago dira euskararen etorkizunaren gaineko kezka eta larritasuna adierazten dituzten datuak eta ikerketak,, eta zailtasun horiei erantsi behar zaie euskararen biziberritzearen aurkako oldarraldi antolatu bat.

Hala ere, sinetsita gaude posible dela euskararen biziberritzeari bultzada ematea, Pizkunde berri bat eragitea, eta horretarako ezinbestekoa dela euskaltzaletasunaren giharra indartzea. Horretara dator ekainaren 13ko mobilizazioa, euskaltzaleok antolatzera, Euskaraz bizitzeko behar den dena aldarrikatzera.

Martxa arratsaldez egingo dugu. 17:00etan Iruñako hiru puntu ezberdinetan bilduko dira herritarrak: Antoniutti, Runako Parkea eta Askatasun Enparantza. Puntu hauetatik Iruñako

kaleak harrotasunez beteko dituzten hiru zutabeak abiatuko dira. Zutabeek Gazteluko Plazan bat egingo dute eta bertan egingo da akitaldi politikoa, amaiera berezi bat emanez.

Zutabeetako bakoitzak euskarak behar duen Pizkunderako ezinbestekoa diren hiru oinarrietako bana ordezkatu du: Ofizialtasun osoa, Jauzia hizkuntza politikoetan eta Euskaltzaletasuna.

## **Bertso eskola 2026/27**

Aurten ere, 2026/27 ikasturterako guraso talde baten eskutik, bertsolaritza eskolak antolatuko dira LH3tik DBH4ra.

Noiz: astelehenero Udarregi eraikinean 12:30etik-13:30era eta 13:30etik 14:30era (Urritik maiatzera)

Urte osoko kuota: 65 euro

Bertsolaria: Lierni Rekondo

Kontaktua: 608 768 539 [Hormairudia](#)

# **HAUR HEZKUNTZA**

## **Ikastola eguna**

**Bihar**, Ikastolaren eguna ospatuko dugu. Eguerdiko 12:30tan HHkook gure emanaldia eskainiko dugu Mikel Laboa plazan (eguraldi txarra egingo balu, Ikastolako frontoian egingo genuke gure emanaldia eta haurrak gure geletan bertan jasoko genituzke).

Haurrak 12:15ean jasoko ditugu herriko guneha honela jantzita:

- HH3koak, kamiseta TXURIAREKIN: Udaletxe aurreko plazan
- HH4koak, kamiseta URDINAREKIN: Sutegiko atarian (aterpean)
- HH5ekoak, kamiseta HORIAREKIN: Laboral kutxaren ondoan.

Zalantzarik baduzue, tutoreei galdetu.



# LEHEN HEZKUNTZA

## LH 3ko irteeraren kobrantza: Irrisarri Land

LH 3ko ikasleek, Irrisarrira egindako irteeraren 3. zatiaren kobrantza, **56,40 €** **ekainaren 8an**, astelehena, egingo egingo da.



## Ikastola eguneko jolasak

**Bihar**, ikastola eguna ospatuko dugu. Goizean zehar ikasleen jolasak izango ditugu. Ikasleek ikastolako sarrera nagusira (errepide aldera) agertu beharko dute ondorengo orduan:



1., 2. eta 3. mailako ikasleak 9:30ean sarrera nagusian.

4., 5. eta 6. mailako ikasleak 10:45etan sarrera nagusian.

1, 2 eta 3. mailako ikasleak amaitzean, 10:45etan kiroldegi aurrean jasoko dituzue.

Bestetik, egokitu zaien zenbakiaren arabera (astean zehar tutoreek jakinaraziko die) koloredun kamisetarekin etortzera gonbidatzen ditugu:

1 zenbakia edo taldea: kamiseta beltza.

2 zenbakia edo taldea: kamiseta txuria.

3 zenbakia edo taldea: kamiseta urdina.

4 zenbakia edo taldea: kamiseta berdea.

## Galdutako gauzak

Agerialdeko sarreran dagoen "arropa galduen txokoan" dagoen arropa, ekainaren 19an Caritaseko ontzira eramango da.



## LH 4ko familiei zuzenduta: LIBURUTRUK 2026/2027

### ZER DA LIBURUTRUK?

Sistema honen helbururik nagusiena testu-liburuak ahal den ikasturte gehienetan berrerabiltzea da. Hitz Aho Guraso Elkartea eta Ikastolaren artean koordinatuz egiten da. Ikastola liburuak eskatu, familiei kobratu eta ekaineko azken egunean liburuak jasotzeaz arduratzen da. Bestetik, Hitz Aho Guraso Elkartea liburuak sailkatzeaz arduratzen da. Sistema hori erabiltzeko arrazoiak:

Guraso elkartea



- 1- Seme-alaben heziketa hobetzea: zenbait balore garatzen lagunduko diegu; besteekiko elkartasuna, guztien gauzak zaintzeko joera, komunitatearekiko lotura, kontsumo arduratsua eta inguruarekiko errespetua,...
- 2- Ekonomikoa: parte hartzen duten familiek liburuetan gutxiago gastatuko dute. Berrerabilgarriak diren liburuen zati bat ordaintzen delako.
- 3- Ekologikoa: liburuak berrerabiltzeak paperaren kontsumoa eta sortutako zaborra gutxitzen du.

Sistema hori LH5. mailatik gorako ikasleentzat da. Beraz, **ikasturte honetan LH4. mailan dagoen norbaitek ez balu parte hartu nahi, [usurbil@ikastola.eus](mailto:usurbil@ikastola.eus) helbidera mezua idatzi beharko luke. Horretarako epea ekainaren 12an amaitzen da. Gainontzeko mailetakoen kasuan, mezua aldaketarik balego soilik idatziko lukete.**

**Gogoratu, behin Liburutruken sartuz gero ezingo dela irten, bestela, ordura arte baliatutako hobarien itzulketa egin beharko litzaioke ikastolari.**

Antolaketa horren baitan, hurrengo ikasturteen amaieran, liburuak Ikastolan utzi beharko dituzue eta hurrengo ikasturteetako liburuak eskuratzeaz Ikastola eta HITZ-AHO arduratuko dira. **Berrerabilgarriak diren liburu GUZTIAK egoera onean itzuli behar direla gogorarazten da, bestela, falta diren liburuak kobratu egingo dira.**

**Ekainaren 13rako** parte hartuko ez duela adierazten ez duen familia guztiei, **60 €-ko fidantza kobratuko zaie ekainaren 16an** eta gerora ez zaie bueltatuko, ez duela parte hartu nahi esaten badu ere.

# BIGARREN HEZKUNTZA

## Ikastola-Eguneko egitarauan aldaketak

Antolaketa arrazoiak medio, DBHko ikasleen egitarauen ordutegian aldaketa egin behar izan dugu

**10:00 - 11:30:** DBHko ikasleen jolasak herrian zehar.

**11:30 - 13:30:** DBHko ikasleen erakusketa Ikastolako laborategian.



## DBH 4ko irteeraren kobrantza

DBH4ko ikasleek, Kataluniara egindako irteeraren kitapena egiteko kobrantza, **ekainaren 8an**, astelehena, egingo egingo da.

